

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MENDAROKO UDALA

Alkatetza Bandoa

Animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean, Animalien Osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legean, irailaren 18ko 1980/1998 Errege Dekretuan, irailaren 16ko 685/2013 Errege Dekretuan eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Gipuzkoan abandonatutako animaliak jasotzeko jarduketan protokoloan xedatutakoaren arabera, Mendaroko udalerriko Arno Kontserbazio Bereziko Eremuan identifikatu gabeko behi- eta ahuntz-aziendak eta identifikatutako ahuntz-aziendak daudela jakinarazten da.

Bando honen bidez, bi egun balioduneko epea ematen zaie behi-azienden titularrei identifikatu gabeko animalien identitatea frogatzeko. Epe hori igarotakoan, eta jabeak proba horiek aurkeztu ez baditu, identifikatu gabeko animaliak berehala suntsituko dira, albaitaritzaz-zerbitzu ofizialek gainbegiratuta.

Bandoaren bidez, hogeita hamar egun balioduneko epea ematen zaie ahuntz-azienden titularrei identifikatu gabeko animalien identitatea frogatzeko eta identifikatutako ahuntz-azienden titularrei ahuntzak eremu horretatik ken ditzaten. Epe hori igarotakoan, eta jabeak frogatze horiek aurkeztu ez baditu, identifikatu gabeko animaliak enkante publikoan besterenduko dira, hirugarrenei lagako zaizkie edo hil egingo dira.

Mendaro, 2022ko maiatzaren 27a.—Iñaki Arregi Uria, alkatea.
(3618)

AYUNTAMIENTO DE MENDARO

Bando de Alcaldía

En virtud de lo dispuesto en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección Animal, en la Ley 8/2003, de 24 de abril, de Sanidad Animal, en los Reales Decretos 1980/1998, de 18 de septiembre, y 685/2013, de 16 de septiembre, y en el protocolo de actuaciones para la retirada de animales abandonados en Gipuzkoa aprobado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, se informa de la existencia de ganado bovino y caprino no identificado y ganado caprino identificado en la Zona Especial de Conservación Arno del Municipio de Mendaro.

Mediante este bando se otorga un plazo de dos días hábiles para que los titulares del ganado bovino prueben la identidad de los animales no identificados, transcurrido el cual y si el poseedor no ha aportado las mencionadas pruebas, los animales no identificados serán destruidos sin demora bajo la supervisión de los servicios veterinarios oficiales.

Mediante este bando se otorga un plazo de treinta días hábiles para que los titulares del ganado caprino prueben la identidad de los animales no identificados, y a los titulares de los animales identificados para que las cabras sean retiradas de la zona, transcurrido el cual y si el poseedor no ha aportado las mencionadas pruebas, los animales no identificados serán enajenados en subasta pública, cedidos a terceros o sacrificados.

Mendaro, a 27 de mayo de 2022.—El alcalde, Iñaki Arregi Uria.
(3618)